

## Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

**680**

139/1995 DEKRETUA, otsailaren 7koa, Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioako sailak sortu, ezabatu, aldatu eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzen dituen Dekretua aldatzen duena.

Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioako sailak sortu, ezabatu, aldatu eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzen dituen urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuaren bidez eman zitzaizkien izenak Administrazioaren egitura osatzen duten sailei.

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren izena aldatzea egokitzat jo da; izan ere, jarriko zaion izen berriak hobeto azalduko baititu sailaren ihardun-arloak.

Ondorioz, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 8, c) atalean egozten zaizkidan ahalmen araberak, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.* - Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioako sailak sortu, ezabatu, aldatu eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzen dituen urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuan, honako hau dioenean: «Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila», honako hau esan behar du: «Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila».

### AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko otsailak 7.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

## Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**680**

DECRETO 139/1995, de 7 de febrero, por el que se modifica el Decreto de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Mediante el Decreto 1/1995, de 3 de enero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, se determinó la denominación de cada uno de los Departamentos en que se estructura nuestra Administración.

No obstante, se ha estimado conveniente modificar el nombre del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente de tal forma que su denominación sintética exprese de forma más precisa las áreas de actuación que le corresponden.

Por todo ello, y en virtud de las facultades que me atribuye el artículo 8, c) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno,

DISPONGO:

*Artículo único.* - En el Decreto 1/1995, de 3 de enero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, donde dice «Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente», debe decir «Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente».

### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 7 de febrero de 1995.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.